

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 517/2014 Foru Agindua, uztailaren 24koa, onartzen duena 230 eredua, hain zuzen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak; sozietateen gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen sarien atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, 2014ko urtarrilaren 16ko bilkuran, ekonomia ituna aldatzea erabaki du, besteak beste, loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak adosteko.

Aurrekoarekin bat etorrita, apirilaren 22ko 7/2014 Legearen bidez aldatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoarekiko ekonomia ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartua, eta akordio hori Arabako Biltzar Nagusiek berretsi dute, otsailaren 26ko 4/2014 Foru Araua, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren lehenengo erabakia berrestekoa, dela medio.

Loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak direla eta, ekonomia itunaren 10. artikulua aldatu da eta adostu loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak Arabako Foru Aldundiak eskatuko dituela bere araudiaren arabera, baldin eta saria jasotzen duenak Arabako Lurralde Historikoan badu ohiko bizilekua edo zerga egoitza.

Indarrean dagoen tasa aplikagarriko atxikipenak edo konturako diru sarrerak, lurralde erki-dearen bera izan behar duenak, salbuesten du loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren autolikidazioa aurkeztu beharretik.

Aurreko guztiari atxikiz, onartzen da loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenen eta konturako diru sarreraren autolikidazio eredua.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. 230 ereduaren onarpena

1. Onartzen da 230 eredua, hain zuzen, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga bereziaren atxikipenak eta konturako diru sarrerak; sozietateen gaineko zerga: loteria eta apustu jakin batzuen sarien atxikipenak eta konturako diru sarrerak. Autolikidazioa. Foru agindu honen eranskinean jasotzen da.

2. Eredua bakarrik egongo da eskuragarri formatu elektronikoan, eta bide telematikoz aurkeztu eta ordainduko da.

2. artikulua. 230 eredua aurkeztu beharra dutenak

1. 230 eredua aurkeztu beharra izango dute, atxiki edo kontuan sartu beharra izanik, ondokoan arabera artikulua honetako 2. idatz zatiak aipatzen dituen sarietako bat ordaintzen duten zergapekoek: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoaren, hamazortzigarren xedapen gehigarriko 6. idatz zatia; ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzkoaren, zazpigarren

xedapen gehigarria; edo abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren, sozietateen gaineko zergari buruzkoaren, 130. artikulua.

2. Horrela, atxikipenari edo konturako diru sarrerei lotuta geratzen dira azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoaren, hamazortzigarren xedapen gehigarriko 1. idatz zatian jasotzen diren sariak, baldin eta hauetako batek antolatutako loteria eta apustuetatik badatoz: Estatuko Loteria eta Apustuen Sozietateak, autonomia erkidegoetako organoek edo erakundeek, bai eta Espainiako Gurutze Gorriak antolatutako zozketetan irabazitako sariak eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalari baimendutako jokoan modalitateetan irabazitakoak ere.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergapekoek ere atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute baldin eta saria salbuespenez badago zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmena aplikatu ahal delako. Kasu horretan bidezko izan daitekeen itzulketa eska dezakete, hitzarmen horretan jasotakoaren arabera.

3. artikulua. 230 eredia aurkezteko epea

230 eredia aurkeztu eta horren zenbatekoa sartuko dute atxiki edo konturako sarrera egin beharra duten subjektuek hiru hiletik hiru hilera, apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 1etik 25era bitartean, biak barne, aurre-aurreko hiruhilekoan ordaindutako sariei dagozkien zenbatekoak eta konturako sarrerak direla eta.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengoa. Foru agindu honen 1. artikuluan xedatutakoa gorabehera, salbuespenez, 230 eredia paperean aurkeztuko da, harik eta telematikoki aurkezteko prest egon arte.

Bigarrena. 230 ereduaren aurkezpena eta 2014ko bigarren hiruhilekoan ordaindutako sariei dagozkien zenbatekoen eta konturako sarreraren ordainketa 2014ko irailaren 1etik 25era bitartean, biak barne, egin beharko da.


AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 24a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria
JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net</p>	<p>PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga bereziari dagozkion konturako atxikipenak eta sarrerak SOZietateen GAINEKO ZERGA Loteria eta apustu jakin batzuetako sarien konturako atxikipenak eta Sarrerak AUTOLIKIDAZIOA</p>	230
--	---	-----

AITORTZANALEA	Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila	Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos	Loteriak, apustuak, zozketak edo jokoak antolatzen dituen erakundeak; ematen dituen sariak atxikipena edo konturako sarrera dute	Ekitaldia <input type="checkbox"/> Epealdia <input type="checkbox"/>
IFZ	Izendura edo sozietatearen izena			

LINDAZIOA	I. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren pertsona fisikoek zergaldian ordaindutako sariak, sari horiek zergaren mende badaude eta ez badaude zergari buruzko foru arauaren 18. xedapen gehigarrian ezarritako karga berezitik salbustuta.			
Diruzko sariak	Hartzaleen kopurua 01	Ordaindutako sarien zenbatekoa 02	Abikipen-oinarrien batura 03	Abikipenen zenbatekoa 04
Gauzako sariak	Hartzaleen kopurua 05	Ordaindutako sarien balioa 06	Konturako sarreraren oinarrien batura 07	Kontur. sarreraren zenbatekoa 08
II. Pertsona Juridikoek eta Sozietateen gaineko Zergaren gaineko subjektu pasiboek zergaldian ordaindutako sariak, sari horiek atxikipena edo konturako sarreraren mende badaude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 18. xedapen gehigarrian ezarritako karga bereziaren salbuespena zehazten duen kopurutik gorako zenbatekoa izateagatik.				
Diruzko sariak	Hartzaleen kopurua 09	Ordaindutako sarien zenbatekoa 10	Abikipen-oinarrien batura 11	Abikipenen zenbatekoa 12
Gauzako sariak	Hartzaleen kopurua 13	Ordaindutako sarien balioa 14	Konturako sarreraren oinarrien batura 15	Kontur. sarreraren zenbatekoa 16
III. Ez-egoliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadun diren eta Espainiako lurraldeko egolliarrak ez diren pertsona edo erakundeek zergaldian ordaindutako sariak, sari horiek zergaren mende badaude eta ez badaude zergari buruzko foru arauaren 7. xedapen gehigarrian ezarritako karga berezitik salbustuta.				
Diruzko sariak	Hartzaleen kopurua 17	Ordaindutako sarien zenbatekoa 18	Abikipen-oinarrien batura 19	Abikipenen zenbatekoa 20
Gauzako sariak	Hartzaleen kopurua 21	Ordaindutako sarien balioa 22	Konturako sarreraren oinarrien batura 23	Kontur. sarreraren zenbatekoa 24
Likidazioa guztira: Abikipenen eta konturako sarreraren batura (04 + 08 + 12 + 16 + 20 + 24)				25
Kentzekoak (solik autolikidazio ordezkioa bada): Kontzeptu, ekitaldi eta epe bererako aurkeztutako aurreko likidazioak direla-eta sartu beharreko emaitzak ...				26
Sartu beharreko emaitza (25 - 26)				30

ORDEZKOA	Baldin eta autolikidazio hau kontzeptu, ekitaldi eta aldi beraren aurreko autolikidazio baten ordezkioa bada, adierazi lauki honetan "X" jarri:	Ordezko autolikidazioa bada, idatzi hemen aurreko autolikidazioaren identifikazio zenbakia:
<input type="checkbox"/> Ordezko aitortpena	Aurreko aitortpenaren identifikazio zk.	

SARBERRA	Data: Sinadura	Ordain gutuna Zigilua eta sinadura Entitatearen Gakoa Data Zenbatekoa
----------	-------------------------	---

NEGATIBOA	Aitortpen negatiboa (30. laukian zero ageri bada, "X" jarriko da)	<input type="checkbox"/>
-----------	---	--------------------------